kirol ...eta kitto!
TOKIKOM
789 zkia. 2012-I-13
ASTEKARIA

# Laino guztien gainetik...



## ...kirol osasuntsuen bidetik!!!

orain duzu aukera!
aek
www.aek.org
matrikula zabalik
Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 eibar@aek.org

RPS 04/02



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

**Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...**
**IRAZABAL KLINIKAn txikienen aho-hortzetako prebentzioaren alde egiten dugu apustu.**
**Egizuz PADI-ren azterketak.**

**5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak**

ZEZEN BIDE
AUTO ESKOLA




ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30



GIDA-BAIMENAK



San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR

**ARGITARATZAILEA:**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA:**
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
**TELEFONOAK:**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
**FAXA:**
943 20 28 72
**Astekariaren E-MAILak:**
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
**Elkartearen E-MAILak:**
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**
Itziar Albizu
Maider Aranberri
Ekhi Belar
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
**ADMINISTRAZIOA:**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA:**
Koldo Mitxelena
**ERREDAKZIO-BURUA:**
Silbia Hernandez
**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**
Jose Luis Gorostegi
**ARGAZKI ARLOA:**
Leire Iturbe, E. Belar
eta S. Hernandez
**HIZKUNTZA ARDURA:**
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA:**
Itziar Albizu
Belen Ulazia
**Tfnoa:** 943 20 67 76
**AZALEKO ARGAZKIA:**
Ramon Beitia Olabarri
**BANAKETA-ARDURADUNA:**
Ainhoa Luz
**TIRADA:**
*8.050 ale*
**INPRIMATEGIA:**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A:**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:**
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

IKUBILLA BAIÑO KIPULA BURU HAUNDIXAGUA.- Handitasuna adierazteko konparazioa. *"Plazan ikubilla baiño kipula buru haundixaguak ikusi jittunat".*
IKUBILLA JASO.- Mehatxu egin. *"Berbetan hasi orduko, ikubilla jaso desta eta ixildu egin bihar izan dot".*

# ESKUTITZAK

### AUZOETAKO BILERAK

Udalak herritarrekin izandako auzoetako bilerak amaituta, eurak egiteagatik zorionak eman nahi dizkiogu. Izan ere, horixe zen **Maixa**ren helburuetako bat, gure hasieratik gainera, eta herritarren eta udalaren arteko gerturatze moduan ikusten genuen, hau da, "parte-hartze" bezala. Ezagun da arrakastatsuak izan direla, bai parte-hartzeari eta baita landutako gaiei begiratzen badiegu ere. Ez genuke nahi egiten diren azkenak izatea eta, ez daitezen hutsean gelditu, etorkizunerako ondoko iradokizunak egin nahi genituzke, horrela emaitzak hobetu daitezen:

1.- Gure ustez moderatzaile baten hutsunea sentitu dugu, bileren benetako dinamizatzaile moduan jokatuko lukeena, zenbaitetan parte-hartze luzeak, pertsonalistak eta errepikakorrak eta abar moztu ahal izateko. Figura hau izateak lagunduko luke bilerak motzagoak izaten, dinamikoagoak eta parte-hartze gehiago eta zabalagoak izaten.
2.- Udalak akta edo idatzi bat prestatzea, herritarrek emandako kexa eta iradokizunak jasoko dituena. Bilera desberdinetan izandako gai berdinak bildu beharko lirateke, txakurren kaken arazoa adibidez.
3.- Udalaren proposamenak edo bere ikuspuntua, jasotako kexa eta iradokizunen gainean:
· Soluzioa baldin badu, nola egingo den eta gutxi gorabehera noizko egongo den.
· Alternatibarik balego gobernu batzordearen aldetik, arrazoitzea.
· Ez badu soluziorik edo egitea ezinezkoa bada, aurrekontuagatik adibidez, ezezkoa arrazoitzea.
4.- 2 eta 3 puntuetan zehaztutako dokumentuak Pegoran eta udalaren webgunean argitaratzea. Jasotako kexa eta iradokizunen aktarekin hasiko litzateke. Behin argitaratuta, denbora bat uztea herritarrek zerrenda ikusi eta kontuan hartu ez den kexa edo iradokizunen bat kontutan hartzea eskatzea. Denbora-tartea itxi ondoren, 3. puntuan zehaztutakoa publikatzea, eta beste denbora tarte baten ondoren herritarrek beharrezko alegazioak egin ahal izatea, Udalak emandako iritziarekin kontrajarri ahal izateko.
5.- Osagarri moduan, auzo bakoitzean herritarren komisio bat sortu beharko litzateke, egindako lanen jarraipena egin ahal izateko eta Udalaren aurrean bozeramale lanak egiteko. Egiten ditugun proposamen hauekin, ikuspuntu eraikitzaile batetik, uste dugu auzoetako bilerek izaera indartsu bat izango luketela eta herritarren eta Udalaren arteko gertutasunean lagunduko lukeela, irabazle Eibarko herria ateraz.

***Maixa Eibarko Herritarren Parte-hartze Mahaia***

## *asteko* HEMEROTEKA *esaldiak*

*"Senarraren errentaren %52 jasota, alargunok ez diegu axola erakundeei, eta gu isilik nahi gaituzte. Orain pentsioak %1 igoko dituztela iragarri dute. Gure artean, 500 euro jasotzen dituenak bost euro gehiago jasoko ditu; eta 800 euro dituenak, zortzi gehiago. Euro horiek berripaperetan ateratzeko balio dute soilik; guri ez digute askorik konponduko"*
(Arrate Aranzeta, Altzoa elkarteko alarguna)

*"Umetan eskatutako guztia izan dutenak gero arazo gehiago izaten dute harremanak egiterakoan; oker dabiltza euren seme-alabei askatasun osoa emanez gero zoriontsuagoak izango direla pentsatzen dutenek, kontrakoa uste dutenek bezain beste. Dena dela, axolagabeak dira guraso txarrenak: nota onak eskatu eta tragoak hartzera doazenak"*
(Amy Chua, Zuzenbidean doktorea)

EIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)
gizarte kutxa

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*

# Ordutegi barrixa Pegoran

**ASTELEHENAZ GEROZTIK ORDUTEGI BARRIXA DAKE PEGORAN, HERRITTARREN ARRETARAKO BULEGUAN.** Ordutegi barrixari jarraittuta, bulegua lehen baiño ordu gehixago zabaltzen dabe oiñ, astian 9 ordu gehixago, hain zuzen be: astelehenetik eguenera bittartian 08.30xetatik 14.30xetara eta 15.30xetatik 19.00etara eta barixakuetan 08.30xetatik 14.30xetara zabalduko dittue atiak; eta, horrekin batera, telefono bidezko arreta (010 / 943708400 zenbakixetan) 08.00etatik 19.00etara bittartian eskinduko dabe astelehenetik eguenera eta 08.00etatik 15.30xetara, barriz, barixakuetan. Horixe aste honetan indarrian sartu dan ordutegixa da, baiña uda sasoirako ordutegixa be aurreikusi dabe honezkero: uztaillaren 1etik 15era 08.30xetatik 13.30xetara zabalduko dabe; iraillaren 16tik 30era 08.30xetatik 13.30xetara eta 15.30xetatik 19.00etara (astelehenetik eguenera) eta 08.30xetatik 13.30xetara (barixakuetan); eta telefono bidezko arreta 08.00etatik 14.00xetara eskinduko dabe uztailleko lehelengo hamabostaldixan eta 08.00etatik 19.00etara (astelehenetik eguenera) eta 08.00etatik 14.00xetara barixakuetan, iraillaren 16tik 30era bittartian.


Pegoran ordu gehixago emongo dittue hamendik aurrera jendia hartzeko. / MAIALEN BELAUSTEGI



# Eibarrek 27.625 biztanle dittu

**AURREKO URTIAREKIN KONPARAUTA, IAZ BAIÑO 102 BIZTANLE GEHIXAGO DAKAZ** gure herrixak, 27.625, hain zuzen be. Horretatik 14.215 andrazkuak dira eta beste 13.410ak, barriz, gizonezkuak. Jatorrixari begira, gure artian bizi diran atzerritarrak 1.778 dira (959 andrazko eta 819 gizonezko) eta 61 herrialde ezberdiñetatik etorrittakuak. Oindiok be Marokokuak osatzen dabe talderik haundixena (240 andrazko eta 370 gizonezko). Datuak 2012ko urtarrillaren 9kuak dira, Udaleko Estadistika atalekuak emondakuak. Adiñari begiratuz gero, 18 urte bittartekuak 4.240 dira (2.113 neskak eta 2.127 mutillak), 19tik 65 urte bittartekuak 17.112 (8.393 andrazko eta 8.719 gizonezko) eta 66 urtetik gorakuak 6.273 (3.708 gizonezkuak eta 2.565 gizonezkuak).

# Eibartar morduak hasi eben urtia Urkon

**URTARRILLAREN 1-IAN GOIZIAN GOIZETIK EGIÑ EBAN EGUZKIXAK ANIMAUTA EDO**, mordua izan ziran Urkora igotzera animau ziranak. …eta kitto! Euskara Elkarteak eta Klub Deportibuak urtero antolatzen daben ekitaldixak, gaiñera, aurten urteurrena ospatzen daben herriko talde bi erakarri dittu aurtenguan: 100 urte betetzen dittuan Armerixa Eskolakuak eta mende erdixa beteko daben Asola Berri alkartekuak. Eurak, beste mendizale guztien modura, Ixuan eskindu zan hamarretakua hartzeko aukeria euki eben, urtia ezin hobeto hasitta.














## Demaseko girua Gureak lantegikuen bazkarixan

**URTEROKO MODUAN, URKIZU INGURUKO ALKARTE GASTRONOMIKUAK OSATZEN DABEN AUZOKOAK** alkartekuak bazkari berezixa prestatu zetsen Gureak lantegikueri Errege egunaren bueltan: zapatuan izan zan bazkarixa eta, bazkalostian, herriko denda, alkarte eta bestelakuak oparitutakuen zozketia egiñ eben bazkarixan parte hartu eben ehundik gora lagunen artian. 1981. urtian ekin zetsen Errege eguneko bazkarixa antolatziari Edozer, Erdi-Bana, Urkusu-Gain, Jaiki, Denon Sahatsa eta Behekuak alkartekuak eta harrezkero urtero antolatzen dabe.



Auzokoak alkartekuak beti bezain fin jardun zeben bazkarixa prestatzeko orduan. / LEIRE ITURBE











## Harrera berua Erregieri

**HIRU ERREGIAK MAGIAZ JANTZI EBEN HERRIXA HILLAREN 5-IAN ETA, EUREN KALEJIRA** hastiarekin batera haizia eta eurixa agertu baziran be, aurretik Ipurua kiroldegixan egindako harreria ezin beruagua izan zan: Ipurua dantza garaikidia taldeko, Ipurua gimnasia erritmikua taldeko eta Eibarko Balleteko 200 bat umek hainbat dantza eskindu zetsazen eta, horren ostian, Untzagan zain zeken karrozaraiño Lambretta gaiñian bajau ziran erregiak, handik Cielito Musika Bandakuak lagunduta kalejira hasteko. Gaiñera, aurten sekula baiño gozoki gehixago banatu zittuen, Armeria Eskolakuak euren sorreraren mendeurrena ospatzeko 30 kilo oparitu zittuen eta.



Erregiak Ipurua kiroldegittik urten zeben kabalgatia egitteko. / EKHI BELAR

**autuan**

**EAJ-REN OTARRA**
Gabonetako loterixarekin batera EAJk zozketatu eban otarra 0239 zenbakixarendako izan da eta irabazliak otsaillaren 1era arteko tartia eukiko dau sarixa jasotzeko, Batzokira juanda.

**KANTABRIAKO ETXEA**
Urtarrillaren 29xan 11.00etan ezohiko batzarra egingo dabe Kantabriako Etxekuak, Jardiñetako egoitzan. Bertan landuko dittuen gaixak garrantzitsuak izango diranez, bertara ahalik eta bazkide gehixen agertzia komeni dala azpimarratu dabe arduradunak.

**LANA BILLATZEKO TALLARRA**
Udalak eta Lanbidek hainbat taldeko tallar eskinduko dittue Portalean (ikastaro gelan, 3. pisuan), 10.00etatik 13.00etara. Lehelena urtarrillaren 18xan izango da: "Lan bilaketarako joera berriak".




## Peña Txinberakuen otarra

**GABONETAKO LOTERIXAREKIN ZOZKETATUTAKO GABONETAKO OTARRA** entregau dabe Peña Txinberakuak, erretratuan ikusi leiken moduan. Produkto ederrekin betetako otarra 0.615 zenbakixarendako izan dala azaldu deskue Peña Txinberakuak.

# Aurkeztutako aurrekontuaren zirriborrua 30 millioikua da

**KRISI EKONOMIKUAREN ONDORIOZ, UDALEKO GOBERNU TALDIAK 2012RAKO PRESUPUESTUAREN ZIRRIBORRUA AURKEZTIAN** aurrekontua *"errealista"* eta *"lujurik barikua"* izango dala aurreratu eban: danera 30 millioi euroren bueltan ibilliko da, iaz baiño millioi bi eta 2009xan baiño 10 millioi gitxiagokua. Inbersiñuen atalerako 4'6 millioi aurreikusi dittue eta kopuru horren erdixa ospittal barrixa jasotzeko orubia erosteko erabiltzeko asmua dake.

Horren aurrian, Bilduk aurrekontuaren gaiñekuak jendaurrian esplikatzeko billera bi egin dittu aste honetan bertan: martitzenian herriko alkartietako ordezkarixen aurrian atalez atal esplikau zittuen aurrekonturako proposamenak jasotzen dittuanak eta gauza bera egiñ eben eguaztenian, herrittar guztiendako deittutako billera irekixan. Bilduk aurrekontuaren gaiñian egitten daben lehelengo irakorketia oso kritikua da hainbat puntutan: *"2012rako aurrekontua Mendiguren y Zarrauak bete zittuan lurra erostiak zihero baldintzatzen dau, inbertsiñuaren %50, aurrekontu osuaren %7'5 hor juaten da eta. Politikuen soldatendako 665.000 euro, komisiñuetara juatiarren 116.900 euro eta alderdi politikuendako 126.900 euro gehixago aurreikusten segitzen dabe, herrittarren partehartzia bultzatzeko eguan 10.000 euroko partida desagertarazten daben bittartian".* Hain zuzen be, Bilduren proposamena politikuen soldateri lotutakuak murriztiaren bidetik doia, beste gauza batzuetarako dirua lortzeko.



## asteko 52 datua

ezkontza ospatu ziran iaz udaletxian, marka guztiak hautsita. Oiñ arte 2005ian ospatu ziran ezkontza gehixen, 42. 2010ian 22 bikote ezkondu ziran eta honezkero aurten ezkontzeko 17 eskaera jaso dittue.



**URTEROKO MODUAN, HILLAREN 17XAN SAN ANTON EGUNA GOGORATUKO DABE AZITTAIN ALDIAN**, auzoko patroia da eta. Horregaittik, domekan 11.00etan meza herrikoia ospatuko dabe auzoko parrokixan eta martitzenian, barriz, 19.00etan auzoko premiñen eta urtian zihar hildakuen aldeko mezia egingo dabe Azittaingo parrokixan.

# San Anton jaixa Azittaiñen

### Asola-Berrikuak be

Bestalde, Asola Berri bola-joku kirol alkartekuak San Antonekin akordau nahi izan dabe alkartiaren sorreraren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldixak antolatzeko orduan eta domekarako "San Anton Azittaingo Patroiaren 1. sarixa" hiru txirlo txapelketia antolatu dabe domekarako, 16.30xetatik aurrera Asola-Berri bolatokixan. Bost oneneri sarixa emongo detse: lehelenguak errekaudaziñuaren %40 eta 1'5 litroko Magnum ardau botilla jasoko dittu, bigarrenak %30 eta txanpan botilla, hirugarrenak %15, laugarrenak %10 eta bosgarrenak %5.

# Museuak bost urte eguaztenian

**URTARRILLAREN 18-XAN, EGUAZTENIAN, ARMAGINTZAREN MUSEUA ZABALDU EBELA BOST URTE** beteko dira eta, hori ospatzeko, egun horretan sarrera duan izango da. Portaleko 5. pisuan daguan museuak hasieran bakarrik armagintzari lotutakuak eskintzen zetsazen bisitarixeri, baiña museua haunditzeko biharren ostian, gaur egunian Eibarko industriari osotasunian errepasua emoten detsa, bestiak beste gure herriko fabriketan egindako bizikletak, josteko makiñak, motorrak eta beste hamaika produkto erakutsita. Museua 16.00etatik 20.00etara zabaltzen dabe eguaztenetik zapatura eta domeketan, barriz, 10.00etatik 13.00era. Gaiñera, egunotan eta hillaren 27ra arte, "Koko-Marruak" erakusketia dago bertan ikusgai, Kezka dantza taldekuak Aratoste inguruko kalejiran erabiltzen dittuen jantzixetako askorekin.



# Medikuntzaz eta genomaz berbetan

**MARTITZENIAN, HILLAREN 17-XAN, NAFARROAKO UNIBERSIDADEKO GENETIKA IRAKASLIA** dan Javier Novok "Medicina y genoma: el futuro ya está aquí" izenburuko hitzaldixa emongo dau Portalean, 19.00etatik aurrera, Aula de Cultura DV-k babestuta. Giza genomaren sekuentzia 2001ian osotasunian irakorri ebenian aurreikusittakuetako asko oindiok be ez dirala bete ikusitta, Novok atzerapena eragin daben faktorietako batzuen gaiñian jardungo dau berbetan. Horrekin batera, epe laburrian gure genomaren informaziñua medikuntzan zelan erabilliko daben azalduko dau zientzialarixak, gizakixaren bizitza-luzeria sekula pentsau bariko kopuruetara aillegatzia posible egingo daben beste hainbat aurrerapen esplikatziarekin batera.



*Urtebete pasatu da tabernetan erretzeko debekua martxan ipiñi zanetik. Ordutik, ohikua da taberna kanpuan jendia zigarrua erretzen ikustia, eurixa, hotza edo berua egin. Jendia konforme ei dago egoera barrixarekin? Edo badake zer esatekorik halako sufrimendua (batzuentzat behintzat) izan leikian aurrian?*

# Zelan ikusi dozu ke bariko urtia?



### Marian Pedrosa
### 40 urte
### etxekoandria

Urtia tabernen kanpuan emon dogu erretzailliaok eta, bittartian, umiak barruan laga dittugu. 'Txip'-a aldatu jaku. Erretziaren debekua ondo eruan dala uste dot. Neri, erretzaillia banaiz be, ondo begittantzen jata neurrixa, gehixago disfrutatzen dotelako ke bariko taberna batian.



### Mª Eugenia Bereziartua
### 36 urte
### injenierua

Nik ez dot erretzen; holan, ez dot aldaketia asko igarri. Hori bai, bitxixa da taberna kanpuan zaguazenian dana kez beteta daguala ikustia, eta lehen umiekin egoteko kanpora urtetzen bagiñan, oin barrura juaten garala.

### Roberto Agudo
### 40 urte
### metalurgikua

Jasan dittut legiaren ondorixuak, erretzaillia naizelako. Halanda be, begittantzen jata umiendako onagua dala holan. Ordu batetik aurrera bakotxak nahi dabena egitteko askatasuna lagako neuke. Umiak daguazenian errespetau, baiña gero bakotxa libre izatia nahi dabena egitteko.



### Iñaki Ubera
### 54 urte
### langabia

Oso txarto! Nik debekua egin baiño lehenago erretzen neban bardiña erretzen jarraitzen dot, baiña bikoitza kontsumitzen dot. Izan be, tabernatik tabernara erretzen dot eta taberna batian sartzerakuan zigarrua bota bihar izaten dot. Gustorago erretzen neban zigarrua taberna barruan.









# OSASUN


## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**
HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57
AMAÑA
HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika
Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

bista eder
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.
calbetón hagin klinika
Tel. / Faxa: 943 03 33 03
Fermin Calbeton, 6 - 1. A
clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika
Jesus Mª Gastesi - Ane Gastesi
Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia
Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02
IRAZABAL
clinica dental
Julian Etxeberria, 12 – 1. esk. Tel. 943 208552
A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK
ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA
Untzaga 5 - 4. .......... 943 70 23 85
EGUNERO

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia
Ortodontzia ume eta helduentzat
Mª Dolores Olaizola Doktorea
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05
MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika
Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak
Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA
- Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- Logopedia
- Inkontinentzia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato Eibarrés
Errehabilitazioa eta Fisioterapia
Urkizu 9 - behean
EGUNERO (08.00 - 19.30)
Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58
patronatorehabi@terra.es

## Estetika klinika

abontza
clínica estética
- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

## Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
FISIOTERAPIA ZENTRUA
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Hemen zure tokia izan nahi baduzu

# GIDA

## Fisioterapia

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

## Okulistak

Centro de Oftalmología Avanzada
**JOSE ALBERDI**
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Clínica Oftalmológica
**RECALDE**
Oftalmologi Klinika
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**
**PODOLOGOA**
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
**943 12 14 93**

## Podologoak

BIDEBARRIETA, 48
**EIBAR**
943 203050
ERDIKO KALE 54
**ARRASATE**
943, 799746
PODOLOGOA
Erdiko Klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**
Maider
Lopez
Etxeberria
*Arragueta 2 Bis-B, Behea C*
*Tfnoa. 943 82 04 88*
*65 Kolegiatu zbkia.*

**PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO
*Iñaki Rivero Zabaleta*
*Calbeton, 4 - 2.*
*(Untzagako dorrea)*
*Tel. 943 20 86 41*

## Psikologoak

**ARGITU**
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807
Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua
- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

## Psikologoak

**AROR**
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
**Ana Artamendi** eta **Beatriz Ortueta**
- *Afasiak*
- *Dislexiak*
- *Disfoniak*
- *Hizmoteltasuna*
- *Dislaliak*
- *Eskola arazoak*
- *Degluzio atipikoa*

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA
Arrate
Garitaonandia
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
**TRATAMENDUAK**
*Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66*
*a_garitaonandia@hotmail.com*

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa
*Oscar Mondragon Lili*
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**
– *Mamografiak*
– *Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)*
– *Hortz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)*

**TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak**
**TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin**
*Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857*

: deitu 943-206776 telefono zenbakira



# Eibarko XVII. KIROL SARIAK

**2011-XII-31**




Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien edizio berria egin zen Portaleko areto nagusian. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeak egiten duten lan nekaezina saritzeko. 25 izan ziren saria jaso zuten kirolariak, bakoitzak modalitate bat ordeztuz eta, horiez gain, sustapen saria ere eman zen lehenengoz eta iaz hildako bi kirolari handiek errekonozimendua jaso zuten. Ezin ditugu ahaztu Euskera saria eta Sari Berezia; azken hau orain dela hilabete batzuk laga zigun Miguel Diegok irabazi zuen eta Arantza Villa bere alargunak jaso. Eskerrik asko bertaratutako guztiei eskainitako berotasunarengatik.



Sari Berezia
MIGUEL DIEGO



Euskera Saria
ASOLA-BERRI



Sustapena
URKOTRONIK



Errekonozimendua
JUAN LUIS ULAZIA



Errekonozimendua
MANUEL LOPEZ



Areto-Foballa
INA ALBERDI



Arku Tiraketa
AITZOL OIARZABAL



Atletismoa
ASIER CUEVAS



Automobilismoa
IÑAKI NARBAIZA



Errugbia
AINARA LETONA


Eskia
PELLO OSORO


Eskubaloia
PABLO ARANZETA


Foballa
HARITZ ALBISUA


Gimnasia Erritmikoa
ANDONI LASKURAIN


Herri Kirolak
AMILCAR DOS SANTOS


Hiru Txirlo
ARKAITZ RODRIGUEZ


Igeriketa
NEKANE TEJEDOR


Judoa
ADRIAN RIAÑO


Karatea
SERGIO RIVAS


Mendia
J- ANTONIO ELKORO “JUXE”


Pilota
ANDER AGIRRESAROBE


Saskibaloia
ADOLFO MALAGA “FITO”


Squash
OSCAR FERREIRO


Tenisa
IMANOL ARGÜESO


Tiro olinpikoa
IÑAKI ZUBIZARRETA


Triatloia
ALBERTO AGIRRE


Txirrindularitza
IZARO LASA


Waterpoloa
ALAIN MOYA


Wu-Shu
MIKEL ASTIGARRAGA


Xakea
DEPORTIBOKO XAKE ESKOLA





Riaño eta Muguruza judokak dominekin.



Ernesto Ezpeleta "Bihurrik" munduko marka berria ezarri zuen Berrizen.



Hierros Anetxe maila igoeraren ate-ateraino heldu zen.



Asier Cuevasek maratoiak eta ultramaratoiak bereganatu zituen.



Dinbi-Danbak San Juan eta San Andres torneoak antolatu zituen.



Jon Larrañaga biriketako trasplantatuak ekimen gogoangarria gidatzen du.



Astelena izan da beste behin profesionaletako jaialdi gehien hartu dituena.



Eibarrek zaletuen ilusioa piztu zuen 2. A mailara igotzea lortu ez arren.

KROS SPORTS
EKIPAMENDUAK
KIROL-MATERIALA
IGERIKETA
PSIKOMOTRIZITATEA
ALTERNATIBOAK
Julian Etxeberria, 2-4
(545 postakutxatila)
Tel. 943701401 Faxa 943702335

Gasoleo banaketa
Baita kalefakzio eta ur berogailuentzat ere
estación de servicio Kantoi eibar
Gauez zerbitzu automatikoa

GASOLINDEGIA
Otaola etorb., 13 - Bis
Tel. 943 207374 Fax. 943 207130



Bike Taldea txirrindularitzarekiko gure herrian dagoen zaletasunaren eredu.



Ane Ziaran, goi mailako duatloilaria.





Xake taldekoak, eskola indartzeaz gain, atzerrian ere izan dira.



Patxi Usobiagak eskalada laga behar izan zuen lesio bat medio.



Iñaki Mateos nagusitu zen Euskadiko fittness txapelketa nagusian.



Eibartarrak-ek Preferentera igotzea lortu zuen.



Urbat-Urkotronik-eko igerilariak Espainia mailako txapelketetan ere nabarmendu dira.



Arratek zuen egoera larritik irtetzeko gestora berria sortu zen.

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

BIDAIA ASEGURUAK

J.A. LASKURAIN

ASEGURU ARTEKARIA S.L.

D.G.S. 1.408 - J

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR





Iñaki Artetxe, Espainiako txapelduna tiroan.



Oraingoan Azitaingo gizon-taldea asto biak eta traktorea baino gehiago izan zen.




Ipurua gimnasia erritmikako senior taldeak Euskadiko txapelketa bereganatu zuen.



Iñaki del Rey azpitxapelduna izan zen Euskadiko Supermotard modalitatean.



Julen Terán atleta gaztea aurre-aurrean izan zen kros proba guztietan.



Areto-foballeko Debabarrenako kadeteek txapeldunen arteko fasea jokatu zuten.



Katu Kaleri irabazita Ruibalek mailaz igotzeko asmoarekin jarraitzen du.



Miguel Laskurainek irabazi zuen Dianakoen Arrateko plater tiraketa torneoa.



Hiru bandako billarrean González izan zen berriro Casinoko irabazlea.



Katearen Egunean Debabarrenako taldeen aurkezpena egin zen beste behin.



Klub Deportiboko batzordeak mendia txikienei ere gerturatzen jarraitzen du.



Xakeko Kruzeta Memorialeko irabazleak.





Joserautok foball zaletuen Liga eta Kopa irabazi zituen Superfinala galdu arren.



Kalamuako judokek eta prestatzaileek hainbat domina eta sari jaso zituzten.



Escudería Eibarrek I. Rallysprinta antolatu zuen Arrate Igoeraren ordez.




Kurilenkok eta Petritxev-ek laguntza eskatu behar izan zuten etxera bueltatzeko.




ARTOLA
jatetxea

ASTEBURUKO
DEGUSTAZIO MENUA

Urdaiazpiko iberikoaren paleta
Etxeko foie-a
Ganba, perretxiko eta espinaken nahaskia

Txipiroiak euren tintan edo
Legatza plantxan

Buztan erregosia edo
Solomilloa plantxan

Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a Armagnac erara

Etxeko Errioxako kriantza ardoa,
sagardoa edo beste

25 € + BEZ

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
16 €
kriantzarekin

Tokia gordetzeko:
943206348

# 2011/2012
# EIBAR FUTBOL TALDEA
# Aupa Eibar!



**2. B Mailako taldea**



**3. Mailako taldea**



**Jubeniletako Ohorezko Ligako Urko**



**Kadeteetako Ohorezko Mailakoa**



**Infantiletako Ohorezko Mailakoa**






2. Mailako taldea



Jubenil Mailako taldea



Kadete Mailako taldea



Jubeniletako Euskal Ligakoa



Kadeteetako Euskal Ligakoa



Infantil Txikiko taldea



Alebinetako taldea





Bolinagak “Txopitea eta Pakea” jaso zuen.



Shalimov handiak irabazi zuen Valenciaga Memorialaren azken edizioa.



Urbat waterpolo taldea asko hazi da, San Juan torneoa irabazteraino.



Urkiko nesken talde gazteak maila bikaina erakutsi zuen Gasteiz Cup-en.



Martin Vouilloz disko jaurtitzaileak hainbat domina irabazi ditu azken denboraldian.



Idi-probak ez ziren falta Arrateko eta Aginagako jaietan.



Deporreko squash taldeak azken edizioko Euskadiko txapela jantzi du.



Asola-Berrikoak nagusi izan ziren Gipuzkoako eta Euskadiko hiru-txirlo txapelketetan.








Juan Zubiaurre gazteak I. Futbol Festa antolatu zuen Eibarren.



Alberto Ferreiro squash-laria txapelarekin.





Eibar Eskubaloia klub berriaren talde nagusia lider sendoa da aurkariak egurtuz.



Nesken errugbiak gero eta indar handiagoa lortzen dihardu Hierros Anetxen.



Tenisean Imanol Argüesok (3.a ezkerretik) jarraitzen du izaten herriko balore onena.



Eibarko Arkulariak hainbat lehiaketatan hartu du parte.



Juan Luis Ulazia mendizaleari egindako agurrak jende mordoa bildu zuen Txaltxa Zelain.



Ugan Klubak karate gazte taldea osatu du azken denboraldietan.







Joseba Plaza, garaile Galdaramiñon.



Klodenek irabazi zuen Euskal Herriko Itzulia, Samuel Sánchez Arraten nagusitu eta gero.



Deporreko eski batzordeak gazteekin osatutako talde indartsua egitea lortu du.



San Andres torneoan 1998an Espainiako txapela jantzi zuen boskotea omendu zuten.



Eskozia La Bravakoek antolatu zuten Estatuko peñen arteko V. Torneoa gure herrian.



Pedro Agirregomezkorta "Petrusek" marka berria ezarri zuen beteranoen disko jaurtiketan.



Dianako ehiztariak, Gisasolatarrak bereziki, nagusitu ziren eskualdeko txapelketetan.



Gazteenen arteko herri-kirolak ikusteko aukera izan zen Euskal Jaiaren egitarauan.

ARGITU
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807
ERRETZEARI LAGATZEKO ikastaroa
urtarrilaren 28an eta 29an
emaitza paregabeekin

EMAKUME ETA GIZON
MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



BTT zeharkaldi berezia antolatu zuten beste behin Debegesatik.



Arkaitz Rodríguez Gipuzkoako txapeldun.





Desegin baino lehen, Arratek ikaragarrizko lana egin zuen harrobiarekin.



Casa Cantabriak antolatutako bolo-palma txapelketan estatuko onenak izan ziren.



Egaña eta Bengoetxea dira gure herriko pilota afizionatuaren ordezkari nagusiak.



Areto-foballeko Debabarrena Gipuzkoako eta Euskadiko erreferentea bihurtu da.



Mutrikun jokatzen den waterpolo Openak gero eta zale gehiago biltzen ditu.



Ramon Quinak talde bikaina osatu du wu-shu modalitatean lehiatzeko.



Olabarria AUTOBUSAK

BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK

Besaide, 11. ELORRIO

Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / Faxa. 94 - 623 16 47



## Bolunburu krosa domekan Olaben

**KROSAZ GOZATZEKO AUKERA POLITA IZANGO DA DOMEKA GOIZEAN OLABEKO ZELAIAN**, parte-hartzea ere goi mailakoa izango baita, jakinda Gipuzkoako kros txapelketak izango direla bertan jokoan. Bolunburu Memorialaren LXII. edizio honek bederatzi lasterketa izango ditu, hasi 10.30etan eta 13.15etan jokatuko den azken probarekin amaitzeko (proba hau benjamin mailako bertako atletekin jokatuko da, kilometro batean). Lasterketa luzeena, bestalde, senior eta promesa mailetako gizonezkoena izango da, 9 kilometrokoa, eta 11.45etan hasiko dena; honen aurretik jokatuko da maila bereko emakumezkoena, 5.700 metroko distantzian.

## Zarautz garaile M. Diego txapelketan

**SOMOS EIBAR ESKUBALOIAK LEHENENGO ZATIAN AURRE EGIN BAZION ERE**, kostaldeko taldea eibartarrak baino gehiago izan zen eta Miguel Diegoren omenez jokatutako 1. edizioa bereganatu zuen. Ford Mugarri Arrasatek 3. postuan amaitu zuen, finalerdietan eibartarrekin luzapenean galdu ondoren, eta Trapagaranek itxi zuen sailkapena.



**Kadeteak selekzioarekin**

Sergio García, Mikel Guerra, Jon Iglesias, Ruben López eta Aitor Oregi Eibar Eskubaloiko kadeteak Euskadiko selekzioarekin hartu dute parte Murtzian jokatutako selekzio autonomikoen arteko Espainiako txapelketan. Errioxari, Murtziari eta Kantabriari irabazita ere, amore eman behar izan zuten Aragoi eta Asturiasen aurrean.

## Garrantzizko Concepto Egile-Atenea

**BIGARREN B MAILARA IGOTA, ARETO-FOBALLEAN EUSKADIKO MAILA GORENA DUEN DEBABARRENAKO** Concepto Egile taldeak neurketa zaila du bihar arratsaldean Elgoibarko Olaizaga kiroldegian, 16.00etan hasita. Labastida Atenea hartuko du Conceptok, errioxarrek ateratzen dizkion lau puntuko aldea murrizteko asmoz. Liga baztertu barik ere, hilaren 25ean neurketa handia izango dute Debabarrenakoek 1. mailako Ríos Renovables - Riberas Navarraren aurka jokatuko duten lagunartekoan.



## Almen torneoa Urkiko neskentzat

**AURREKO HIRU URTETAN FINALA JOKATU ETA GERO, AZKENEAN** Urkiko neska gazteek Aretxabaletako Almen Gabon torneoa irabazi zuten, jokoan zegoen 6. edizioan. Lehenengo urteko jokalariekin aurkeztu arren, hauek maila onean jardun zuten eta erakutsitako kemenak garaipena eman zien. Infantil mailako mutilen taldeak, bestalde, 6-1 irabazi zion Eibartarrak-i Unben jokatutako derbian.



## Eski irteera bertan behera

**ELURRA NAGI DABIL AURTEN ETA, IKUSTEA ERE ZAILA JARRI ZAIGUN HONETAN,** Klub Deportiboko eski batzordeak bertan behera laga behar izan du aurtengo denboraldiko lehen irteera. Asteburu honetan egin behar zuten irteeran izena eman duten guztiak, beste urte batzuetan egin den moduan, hilaren azken asteburuan (28/29) egingo den bigarren eskursiorako geratuko dira apuntatuta. Dena dela, batzordekoak harremanetan jarriko dira izena eman duten guztiekin.

Lan Aseguru Artekaritza
Autoa, Etxebizitza, Istripu eta Bizitza asegurua...
...ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK
Estaziño, 12 - behea Tel. 943-257545 Fax. 943-257546

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• Koroak • Eskelak • Hilarriak • Agiriak
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

*Abenduaren 14a inoiz ahaztuko ez duen data da Iñigo Ruiz de Galarretarentzat. Eibartarrak Bilboko Athletic Club-ekin debuta egin zuen Pariseko Printzeen Parkean Paris Saint Germainen aurkako Europako Ligako partiduan. 18 urte ditu eta etorkizunean foballari garrantzitsua izan daitekeela diote adituek.*



## IÑIGO RUIZ DE GALARRETA, foballaria:

# "Debuteko kamiseta markoan ipinita daukat etxean"

***- Zer sentitu zenuen Printzeen Parkean, zelaira irtetzear, Athletic Club-en lehen taldearekin debuta egitera?***

Txikitatik amestutako zerbati betetzera zihoan. Partidu bat gehiago zen, baina berotzen nengoenean entrenatzaileak aulkira hurbiltzeko esan zidanean demaseko poza sentitu nuen. Emozio handiz joan nintzen korrika zelaira irtetzeko prestatzera.

***- Tokia eta txapelketa, gainera, ez ziren nolanahikoak.***

Ez. Parisen, Printzeen Parkean, Paris Saint Germainen aurka eta Europako Ligan debuta egitea izugarria izan zen.

***- Nola sentitu zinen partiduan?***

Pentsatzen nuen urduriago egongo nintzela, baina sartu nintzen momentutik partiduan sartu nintzen. Gainera, taldekideekin urte osoa eman dut entrenatzen eta eurekin jokatzera ohituta nago. Asko lagundu zidaten, bestetik. Minutu gehiago jokatzeko gogoa neukan, baina zelaira irtetzea bakarrik niretzat demaseko saria izan zen.



***- Norbaitekin aldatu zenuen kamiseta partiduaren ostean?***

Ez, ez! Kamiseta hori niretzat gorde nuen, ondo gainera. Hor daukat, logelan, marko batean jarrita.

***- Aurredenboraldia lehen taldearekin egin zenuen. Zer sentitu zenuen udan aurredenboraldia lehen taldearekin egingo zenuela esan zizutenean?***

Hasiera batean 2. B Mailan dagoen Bilbao Athleticekin hasi nuen aurredenboraldia, baina orduan, Marcelok (Bielsa) bigarren taldeko hainbat jokalari ikusi nahi zituela esan ziguten eta Valentziara joan behar ginela lehen taldearekin aurredenboraldia egitera. Uff, oso-oso pozik hartu nuen berria! Oso ondo egon zen, baina oso-oso gogorra izan zen aurredenboraldia. Egunero lan handia egiten genuen, hainbat saio ezberdin, eta atsedenerako geneuzkan momentuak lotan pasatzen genituen, atsedena hartzen, pentsa. Hainbat lagunarteko neurketa ere jokatu genituen eta ondo aritu nintzen haietan. Horrela, orain eurekin dihardut entrenatzen, beraz, merezi izan zuen.

***- Nolakoa da profesional artean bizi den giroa?***

Egia esan oso zorte handia izan dut lehen taldean aurkitu dudan jendearekin. Oso giro ona bizi da, gehienak gazteak gara eta hori igartzen da, baina nagusienekin ere harremana zoragarria da, eta orokorrean giro polita dago taldean eta oso gustora nago. Hasieratik gehien lagundu didan taldekidea Markel Susaeta izan da. Txikitatik ezagutzen nuen eta asko lagundu dit. Gero, gazteen artean ere ezagutzen nituen beste batzuk, Iker Muniain adibidez. Kapitainak ere (Gurpegi adibidez) oso ondo portatzen dira gazteenekin, eurek ere bizi izan dutelako guk orain bizi duguna.

***- Eta entrenatzailea nolakoa da? Dioten bezain zoroa da Bielsa?***

Foballaz asko daki eta oso entrenatzaile ona da. Hala ere, lan asko egin behar da berarekin eta gogorra da.

***- Noiztik zabiltza Athletic-eko harrobian?***

Bederatzi urterekin hasi nintzen Lezaman, txiki-txikitatik. Orduan nagusiak hurrun ikusten dituzu eta amesten duzuna da noizbait zu euren tokian egotea. Orain momentu hori heldu zait eta ia ezin dut sinestu.

***- Lehen taldearekin entrenatu beharrarekin, maila profesionalean aritu beharrarekin... nolakoa da bizitza 18 urteko foballari batentzat?***

Zure adinekoek egiten duten gauza asko egiteari laga behar diozu, argi dago, baina horrelako aukera bat aprobetxatu egin behar dudala pentsatzen dut. Agian ezingo ditut nire lagunek egiten dituzten hainbat gauza egin, baina gero Parisen 5 minutu jokatzen baditut, merezi du.

***- Hurbil ikusten duzu 1. Mailan debuta egitea?***

Aldi bitan konbokatuta joan naiz, baina badakit oraindik ez nagoela prest 1. Maila bezalako txapelketa batean jokatzeko. Oraindik 2. B mailan partiduak jokatu behar ditut eta foballari onagoa egin. Baina bai, amesten dut momentu horrekin.

Euskal Herrian egiten den musikaren panoraman goi-goian dauden proposamen bi batuko dira gaur Coliseoan. Batetik, Bide Ertzean talde tolosarra, Don Inorrez azken lana aurkezten dihardutenak arrakasta osoz. Eta, bestetik, Maite Arroitajaruregi arituko da Mursego bezala. 20.30etan hasiko da ikuskizuna.

IMANOL UBEDA (Bide Ertzean):

## "Benetako saria zuzenean jotzea da"



***- Don Inorrez-ekin Euskarazko Kantu Onenaren saria jaso duzue XV. Premios de la Musica delakoan. Inor ez izateko, zerbait bazarete.***

Diskoa argitaratu genuenetik hona, guretzat garrantzia gutxien duen kontua da sariarena. Izan ala ez izan aitortzeko sasoian, sariei ez diegu sekula ahalmen hori eman: sariak beti dira bidegabeak. Musika sari eta lehiaketetatik at egon beharko luke. Hala ere, gure ingurukoei izugarrizko ilusioa egin zien, guri baino gehiago: eta gure ingurukoak pozik ikustea guretzat ere pozgarria da. Dena dela, gustura jaso genuen saria: emandakoa esker onez jaso genuen. Baina guretzat benetako saria zuzenean jotzeko aukerak izatea da, Coliseoan jotzeko aukera izatea.

***- Biraren azkenaurren kontzertua eskainiko duzue Eibarren. Nola joan da bira?***

Diskoa Gaztelupeko Hotsak zigilura iritsi zenean, autoa hartu eta Tolosatik Soraluzerako bidea egin nuen. Gaztelupekoen bulegotik 20 CD hartu eta, etxera bidean, Deskargan zulatua izan nuen autoan. *"Ño!"*, pentsatu nuen, *"ez gara oso urruti iritsiko disko honekin"*. Gauzak nola diren! Inoiz baino gehiago bidaiatu dugu: Katalunian izan gara bitan, Londreseko Euskal Etxean ere jotzeko aukera izan dugu. Horretaz aparte, guretzat orain arte arrotzak izan diren plaza batzuetan aritzeko aukera izan dugu: Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Hatortxu Rock jaialdian... Horretaz gain, aitzakia ederra izan da berriz ere gustuko ditugun tokietara itzultzeko: Espaloia, Durango edota Bilboko Kafe Antzokietara.

***- Nolakoa izango da Eibarko kontzertua?***

Don Inorrez diskoa ari gara aurkezten eta horko kantuek gaur egun pisu handia dute gure errepertorioan. Baina aurreko diskoetako kantuak ere joko ditugu eta baita berriki grabatu dugun bat ere: *Adarrartean*, Intxorta 1937 elkarteak plazaratu duen bilduma baterako konposatu duguna.

***- Mursego ere egongo da kontzertuan. Elkarrekin arituko zarete?***

2009ko udaberrian, Jolie Holland ikustera joan ginen Gazteszenara (Donostian). Aurretik Mursegok abestu behar zuela bagenekien, baina ez genuen bere inongo erreferentziarik. Maite ezagutzen genuen, baina Mursegorekin egiten zuen proposamena ez. Emanaldi horretan uste dut ia ikusle gehienak seko maitemindu ginela Mursegorekin. Berria, ezberdina, indartsua... Buruan izan genuen emanaldi hura egun askotan. Azken aldian Euskal Herrian eman den proposamen interesgarriena dela esan daiteke.



## Usartza Txistu Taldea Euskaldunan

**EGUAZTENEAN USARTZA TXISTULARI TALDEAK BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN KONTZERTUA** eman zuen, Bilboko Udal Txistularien Bandako neguko denboraldiaren barruan kokatutako emanaldian. Bilboko txistulariek *"euskal musika popularraren difusioan ibilbide historiko handia duen taldea"* omendu nahi izan zuten, eibartarrak eguazteneko kontzertuan parte-hartzera gonbidatuta. Bere sorreraren 75. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dagoen Usartza taldeak errepertorio klasikoko Isidro Ansorena eta Pepe Andoain moduko autoreak garaikideak diren beste batzuekin uztartu zituen Bilboko emanaldian.

Usartza Txistu Taldearen lehen kontzertua 1935eko apirilaren 16an izan zen, lau urte lehenago aldarrikatutako Errepublikaren oroimenez, Musika Bandak urtero eskaintzen zuen kontzertuaren atsedenaldian. Gaur egun hamar musikarik osatzen dute taldea: Elena Pérez (lehen txistua eta zuzendaria); Enrike Montero, Iratxe Giménez, Mireia Astiz, Ainhoa Urkizu eta José Miguel Laskurain (lehen txistuak); Asier Castelos eta Javier Zorrakin (bigarren txistuak); Germán Ereña (silbotea); eta Iñaki Orbegozo (perkusioa). Emanaldian Mari Sol Arrillaga soinujolearen laguntza izan zuten.

## Argazki erakusketak tabernetan

**HIRU ARGAZKI ERAKUSKETA IPINI DITUZTE IKUSGAI KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKOEK.** Hilaren 31ra arte Ainara Garcíaren "Euskal Herriko Txokoak" izenburukoa Portalea tabernan ikus daiteke, Oscar Blancoren argazkiak El Ambigú tabernan daude ikusgai eta José Luis García de Madinabeitiaren argazkiak, berriz, Deporren.








## Coliseorako sarreren salmenta



Sarreren salmentarako ordutegiak jakinarazi dituzte Coliseotik. / Leire Iturbe

**COLISEO ANTZOKIAN ESKAINTZEN DIREN IKUSKIZUNETARAKO SARREREN SALMENTARAKO ORDUTEGIAK** honakoak direla eman dute aditzera arduradunek: aldez aurreko salmenta astelehenetan 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara; salmenta arrunta, berriz, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago hasiko da. Zinemari dagokionez, 17.00etako emanaldietarako sarrerak emanaldia hasi baino ordubete lehenago hasiko dira saltzen eta gainontzeko emanaldietarako sarrerak, berriz, emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago. Bestalde, zinema emanaldien 2012rako prezioa 5'5 eurokoa izango da eta 3Dko emanaldietarako sarreren prezioa euro bat merketu dute, 7'5 eurotik 6'5 eurotara jaitsita.

## Yoga ikastaroa otsailetik aurrera



Urte berriarekin batera, bizitza osasuntsuagoa eramateko aukera da yoga egitea.

**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK HASIBERRIENTZAT OINARRIZKO YOGA IKASTAROA** antolatu du. Otsaileko eta martxoko lau martitzenetan izango da (otsailak 7, 14, 21 eta 28 eta martxoak 6, 13, 20 eta 27) arratsaldeko 18.30etatik 20.00etara ...eta kitto!-ren egoitzan. Izen-ematea zabalik dago (...eta kitto!-ren bulegoan, Urkizu, 11 solairuartean edo 943200918 telefono zenbakian) eta ikastaroak 12 euro balio du (10 euro ...eta kitto!-ko bazkide eta berbalagunentzat). Zerria (esterilla) eta arropa erosoa eraman beharko da.




"Wilt" lanaren kartela.

## Antzerkia Ados Teatroarekin hilaren 20an

**ADOS TEATROA TALDEKOAK COLISEOAN IZANGO DIRA HILAREN 20-AN**, 20.30-etan "Wilt, panpina puzgarrien hilketa" ikuskizunarekin. Garbi Losadak zuzendutako lanean Mikel Laskurain, Isidoro Fernández, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola, Koldo Losada eta Fernando Ruiz aktoreek jardungo dute Henry Wilt itxaropena galduta duen gizonaren gorabeherak taularatzen.

Centro de fisioterapia
MS
Manu Sánchez

KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)

# Marrazki lehiaketa Galiziako Etxean

**BIHAR ARRATSALDEAN, 16.30-ETAN HASIKO DA AS BURGAS GALIZIAKO ETXEAN** Gabonetako postalen marrazki-lehiaketa, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Maila bi bereiziko dituzte, bat 10-12 urte bitartekoentzat eta beste bat 6-9 urte bitartekoentzat, eta maila bakoitzerako hiru sari ematea dago aurreikusita. Horrez gain, nagusien mailako irabazleak egindako marrazkia hurrengo Gabonetarako postala egiteko erabiliko dute. Parte hartzen duten umeen marrazkiak urtarrilean eta otsailean ikusgai ipiniko dituzte.



Gabonetako postalen marrazki-lehiaketak tradizio handia du Galiziako Etxean. / LEIRE ITURBE

Bestalde, Galiziako Etxeak urtero ospatzen dituen Dia das Letra Galegas jaien egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa antolatu dute lehenengoz. Gaia librea izango da, baina "XXIX. Día das Letras Galegas. Casa C. de Galicia As Burgas. En homenaje al escritor Valentín Paz Andrade" idatzita agertu beharko da derrigorrez. Irabazleak 100 euro jasoko ditu eta lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 28a izango da. Informazio gehiagorako eta lanak entregatzeko Galiziako Etxera jo daiteke (Urkizu, 11 behean).

## laburrak

**NAPOKA IRIA DONOSTIAN**
Gaur 20.30etan Napoka Iriak kontzertua eskainiko du Donostiako Doka Kafe Antzokian (Errege zain, 20, Antigua), Physis Versus Nomos-ekin batera. Harrobialantzen ekimenaren barruan antolatutako emanaldirako sarrerak 5 eurotan ipiniko dituzte salgai.

**EHE-N AGENDAK SALGAI**
Eibarko Euskal Herrian Euskaraz-ek aditzera eman duenez, nahi duenak EHE-k 2012rako argitara eman duen agenda erosteko aukera dauka Klub Deportiboaren tabernan. Agendak 7'5 eurotan ipini dituzte salgai.

**SOSTOA ELGOIBARREN**
San Anton jaiak direla eta, Sostoa abesbatzak zarzuelari eskainitako kontzertua emango du Elgoibarko Antzokian 12.30etan, pianoan Isabel Laspiur eta Mª Karmen Etxebarriak lagunduta. Zarzuela handiari omenaldia egiteko kontzertua izango da.




# Zinea euskaraz eta doan

**DOMEKARA ARTE MARTXAN EGONGO DEN EUSKO JAURLARITZAREN "ZINEMA EUSKARAZ"** ekimenari jarraituta, internet erabilita euskarazko filmak sarean, streaming bidez doan ikusteko aukera eskaintzen dute www.kulturklik.com webgunean. Ekimenaren bigarren urtea den honetan 13 film berri gehitu dizkiote zerrendari: "80 egunean", "Arriya", "Izarren Argia", "Olentzero eta oparien ordua", "Amerikanuak" eta beste hainbat. Denera 43 film daude ikusgai.

# Bertso Egunerako sarrerak salgai

**URTARRILAREN 28-AN DONOSTIAN OSPATUKO DEN BERTSO EGUNERAKO** sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eu atarian. 2012an Euskal Herriko Bertsozale Elkartea sortu zela 25 urte beteko dira eta urteurren hori izango da Bertso Egunaren ardatza. Egitarauari 12.00etan ekingo diote, Donostiako Alde Zaharrean. Ekitaldi nagusia, berriz, arratsaldean, 18.00etan hasiko da Kursaaleko areto nagusian eta, ondoren, nahi duenak Kursaaleko NiNeu jatetxean 21.00etan hasiko den afarian eta festan parte hartzeko aukera izango du.




# "Etxeberria: lehen urtea" Portalean

**GAUR ARRATSALDEAN INAUGURATUKO DA PORTALEAN "ETXEBERRIA: LEHEN URTEA" IZENBURUKO** erakusketa. Roberto López Etxeberriak aurten Cibeles pasarelan diseinatzaile gazte onenaren saria bigarrenez jarraian eskuratu du eta otsailaren 5era arte martxan izango den erakusketan saritutako bilduma bietako jantziak eta irudiak egongo dira ikusgai. Erakusketa ohiko ordutegian egongo da zabalik, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.



# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, GARAZI, atzo urtia bete zenduan-eta. Famelixaren partez.


Zorionak, ARETX, zure zazpigarren urtebetetzian. Asko maitte zaittugu. Eneko eta etxekuen partez.


Zorionak, SABRINA, gaur sei urte egitten dozuz-eta. Etxekuen partez.


Zorionak, JONE, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta Anderren partez.


Ongi etorri, MARKEL, abenduaren 27ttik gure artian zagoz-eta. Etxeko guztien partez.


Zorionak, ANE, hillaren 9xan urtia bete zenduan-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, JON! Zapatuan sei urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Kepa, Mikel eta Noraren partez.


Zorionak, ANER Alberdi Etxabe, bixar urtebete egingo dau-eta gure etxeko printzipituak. Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, MANEX Orueta, abenduaren 27xan urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.


Zorionak, IRADI, hillaren 11n urte bi bete zenduazen-eta. Muxu haundi-haundi bat etxeko printzesarentzat.


Zorionak, MIREN, gure potxola, atzo lau urte bete zenduazen-eta. Segi beti bezaiñ alai. Patxo potolo bat etxekuen partez.


Zorionak, DANEL, hillaren 2xan urtiak bete dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Peioa eta Inharren partez.


Zorionak, IRAIA, zortzi urte be egin dozuz-eta. Muxu haundi bat asko maitte zaittuzten Martxel, aitatxo eta amatxoren partez.


Zorionak ENERITZ gure etxeko sorgiñari, atzo urte bi bete zittuan-eta! Muxu potolo bat famelixa eta lagun guztien partez.


Zorionak, LIBE, gaur hiru urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.


Zorionak, tia IHINTZA, hillaren 10ian urtiak egin zenduazen-eta. Oso gozua zeguan tiramisua. Ekhi eta Eñauten partez.


Ongi etorri abenduaren 30etik gure artian daguan MALEN Vega Arriagari!!! Famelixaren partez.


Zorionak, JULE, astelehenian sei urte egingo dozuzelako. Laztan haundi-haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, UNAI, atzo zortzi urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat tia eta tioren partez.


Zorionak, GORKA eta EKHI, hillaren 8xan eta 3an urtiak bete dozuez-eta. Etxekuen partez.


Zorionak JANAri (lau urte hillaren 16xan) eta bere osaba PABEN-i (30 urte hillaren 17xan), asko maitte deutsuen famelixaren partez.



Zorionak, MANOLI (hillaren 18xan 83 urte egingo dozuzelako) eta MALEN (bixar lau urte beteko dozu-eta). Etxeko guztien partez.

## JAIOTAKOAK

- **Ander Moya Gumbao.** 2011-XII-24.
- **Markel Vallejo Marfull.** 2011-XII-27.
- **Jon Prieto Ulazia.** 2011-XII-28.
- **Naia Fernández González.** 2011-XII-28.
- **Ivan Pizarro Rubio.** 2011-XII-28.
- **Maddi Astigarraga Pérez.** 2011-XII-29.
- **Sonia Mendy.** 2011-XII-29.
- **Malen Vega Arriaga.** 2011-XII-30.

## HILDAKOAK

- **Lur Arregi Mallabiabarrena.** 91 urte. 2011-XII-28.
- **Leandra Elizburu Bilbao.** 88 urte. 2011-XII-30.
- **Ramon Imaz Atxa.** 57 urte. 2012-XII-30.
- **Roberto Murgiondo González.** 53 urte. 2011-XII-31.
- **Jesus Mª Larrañaga Retolaza.** 72 urte. 2012-I-1.
- **Ramon Alberdi Ajubita.** 86 urte. 2012-I-2.
- **Floren Lander Irisarri.** 86 urte. 2012-I-2.
- **Evaristo Vázquez Salgado.** 85 urte. 2012-I-3.
- **Jorge Juan Artamendi Errasti.** 72 urte. 2012-I-3.
- **Mª Jesus Martitegi Mekolalde.** 88 urte. 2012-I-4.
- **Encarnacion Hidalgo Dávila.** 88 urte. 2012-I-4.
- **Alejandra Ceballos Fernández.** 71 urte. 2012-I-8.
- **Isabel Olazagoitia Abascal.** 55 urte. 2012-I-8.
- **Constan Contreras Arce.** 94 urte. 2012-I-10.

## horoskopoa

**ARIES**
Ez duzu urtea zuk nahi bezala hasi, baina egoerak hobetzera joko du berehala. Berri on bat jasoko duzu eta asko animatuko zara.

**TAURUS**
Urtarrilaren lehen asteak gogorrak egingo zaizkizu, 'urtarrileko aldapa' delakoa. Pioleta beharko duzu malda pasatu ahal izateko.

**GEMINI**
Uste duzuna baino gaitasun handiagoa daukazu; kontua da ez zarela horretaz konturatzen eta ez duzula aprobetxatzen.

**CANCER**
Ezer ez da betirako. Konturatuko zara gauzak momentuan bizi behar dituzula. Ondo sentituko zara horrela jarduten, momentukoa bizitzen.

**LEO**
Zenbakiak ez dira oso politak zure kontu korrontean. Zerbait egin beharko duzu hori konpontzeko: alferrikako hainbat gastu kendu?

**VIRGO**
Atzean lagako dituzu iazko ohitura txarrak eta beste modu batean ikusiko dituzu gauzak. Ez da erreza izango, baina lortuko duzu.

**LIBRA**
Datorren astean izango duzu aspalditik eskuratu nahi duzun hori lortzeko azken aukera. Egia esan, inoiz baino errazago izango duzu.

**SCORPIUS**
Urtea hasi berri da eta urte berriak lagun berezi bat ekarri dizu albora. Ea lortzen duzun gehiago erakartzea, ez da erreza izango inolaz ere.

**SAGITTARIUS**
Urte berriko biharamona pasatuta, dantzarako gogoa izango duzu asteburuan. Hotza pasatzeko aitzakia ezin hobea da dantza egitea.

**CAPRICORNIUS**
Mugikor, ordenagailu eta horrelako gauzetatik kanpo bizitza dagoela konturatuko zara datozen egunotan. Zenbat gauza galdu dituzu, ezta?

**AQUARIUS**
Aldaketen sasoia hasi da zuretzat. Poliki-poliki gauzak aldatzen joango dira eta gutxi barru konturatuko zara zenbatekoa izan den aldaketa hori.

**PISCIS**
Zurrumurru bat helduko da zure belarrietara. Kasu egin edo ez, hori izango da kontua. Denborak erakutsiko dizu hori egia den edo ez.

## Barixakua 13

**KONTZERTUA**
**20.30.-** Bide Ertzean eta Mursego. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

## Zapatua 14

**LEHIAKETA**
**16.30.-** Gabonetako postalen marrazki lehiaketa. As Burgas Galiziako Etxean.

**KALEETAN KANTUZ**
**19.30.-** Kaleetan Kantuz-ekoen irteera. Untzagatik hasita.

## Domeka 15

**KROSA**
**10.30.-** LXII. Bolunburu oroigarri krosaren hasiera. Azken proba 13.15etan. Arraten (Olabeko zelaian).

**SAN ANTON JAIAK**
**11.00.-** Meza herrikoia. Azitaingo parrokian.
**16.30.-** Asola-Berriko Hiru Txirlo bola-txapelketa. San Anton Azitaingo Patroiaren 1. saria. Asola-Berriko bolatokian.

## Astelehena 16

**HITZALDIA**
**19.30.-** *"Esperientzia historikoak eta balorazio kritikoa"* hitzaldia, Juan Manuel Sinderen eskutik. Portalean.

## Martitzena 17

**IKASTEN**
**10.30.-** Biltzar Orokorra. Armeria Eskolan.

**SAN ANTON JAIAK**
**19.00.-** San Anton Eguna dela eta, meza auzoko premien alde eta urtean zehar hildakoen oroimenez. Azitaingo parrokian.

**HITZALDIA**
**19.00.-** *"Medicina y genoma: el futuro ya está aquí"*, Javier Novo Nafarroako Unibertsitateko Genetika irakaslearen eskutik. Portalean.

## Eguaztena 18

**IKASTEN**
**11.00.-** Hizketaldi-kafea: *"Giza gorputzeko organoen dohaintza"*. Untzaga jubilatu etxean.

**MUSEOAREN URTEURRENA**
**16.00.-** Armagintzaren Museoaren 5. urteurrena dela eta, sarrera doan.

## Eguena 19

**IKASTEN**
**10.00.-** *"Grafologia"*, Magdalena Ezkurra grafologoaren eskutik. Armeria Eskolan.

**EGO IBAR ZINE KLUBA**
**17.00 eta 21.00.-** *"Bebés"* (Zuz: Thomas Balmés). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

## lehiaketak

– **"Aratosteak 2012 Eibarren" kartela.**
Informazioa eta lanak aurkeztea: 2012ko urtarrilaren 19ra arte, Pegoran.

– **Narruzko Zezen Sariak.**
Gaia: Antzez artikuluak eta gidoiak. Informazioa eta lanak aurkeztea: Hezkuntza Esparruan (Egoitza Zentroan), 943208444 telefono zenbakian.

– **Portada lehiaketa.**
XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: Otsailaren 28ra arte, As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).

## DENBORAPASAK

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 3 | | | | | 8 | | |
| | | | 6 | | 4 | | | |
| 5 | | 6 | 8 | | | 7 | 1 | |
| 1 | | | | 9 | | 4 | | 2 |
| | 7 | | | | | | 5 | |
| 2 | | 5 | | 1 | | | | 8 |
| | 5 | 8 | | | 7 | 2 | | 3 |
| | | | 4 | | 5 | | | |
| | | 7 | | | | | 6 | |



AURREKOAREN EMAITZA

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## erakusketak

– *Urtarrilaren 15era arte*

***ARGAZKILARITZA TALDEA***ren erakusketa. *Topalekuan.*

– *Urtarrilaren 27ra arte*

***KOKO-MARRUAK***. *Armagintzaren Museoan.*

– *Urtarrilaren 31ra arte*

***JOSE LUIS GARCIA DE MADINABEITIA***ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

***OSCAR BLANCO***ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

***AINARA GARCIA***ren "Euskal Herriko txokoak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

– Otsailaren 5era arte

***"ETXEBERRIA: LEHEN URTEA"***. *Portalean.*

## ikastaroak

– **Yoga (hasiberrientzat).**
Noiz eta non: Otsailak 7, 14, 21 eta 28 eta martxoak 6,13, 20 eta 27, 18.30etatik 20.00etara. …eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartean).
Izen-ematea: …eta kitto!-n. Prezioa: 12 euro
(10 euro …eta kitto!ko bazkide eta berbalagunentzat).

## farmaziak

***13, barixakua***
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

***14, zapatua***
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

***15, domeka***
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

***16, astelehena***
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

***17, martitzena***
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

***18, eguaztena***
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

***19, eguena***
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

***20, barixakua***
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

## zinea Coliseoan

**(1 ARETOAN)**
**13an: 22.30 (1 Aretoan)**
**14an: 19.45 eta 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "Cinco metros cuadrados"

*Zuzendaria:* **Max Lemcke**




**(2 ARETOAN)**
**13an: 22.30 (2 Aretoan)**
**14an: 19.45 eta 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "La guerra de los botones"

*Zuzendaria:* **Christ. Barratier**




**(ANTZOKIAN)**
**14an: 19.45 eta 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "La hora más oscura" 3D

*Zuzendaria:* **Chris Gorak**




## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................*112*
Pegora .............................*010*
Udaletxea .........*943 70 84 00*
Portalea............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.....*943 20 15 25*
Mankomunitatea*943 70 07 99*
Debegesa..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ..........*943 03 34 00*
Iberdrola ..........*901 20 20 20*
Naturgas ...........*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..*943 22 22 22*
Mendaro osp.....*943 03 28 00*
Anbulategia......*943 03 25 00*
Torrekua...........*943 03 26 50*
Errepideak........*902 11 20 88*
Ertzaintza .........*943 53 17 00*
Eusko Tren .......*902 54 32 10*
Pesa .................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
.........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.35 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 56 m². Igogailua. 168.000 euro. Tel. 672-622774.
– Jardiñeta kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea eta komuna. Kalefakzio zentrala etxe guztian. Sartzeko prest. Eguzkitsua. Tel. 688-873807.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 609-901546.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Honda CBF 500 motorra salgai. 2007. urtekoa. 12.700 km. 3.500 euro. Tel. 943-530667.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 685-710962.
– Garajea salgai San Pion. Tel. 943-702231.

### 3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
– Garajea alokagai Arrate-Biden. 1. solairuan, itxia eta autoa garbitzeko tokiarekin. 90 euro. Tel. 679-310083.
– Ileapaindegi berria alokagai, arazo pertsonalengatik. Merke. Tel. 667-806737.
– Garaje itxia alokagai. Tel. 617-688311. Maria.
– Lokalak alokagai Ubitxa kalean. Behe solairuan eta kanpora begira. 80, 100, 150 eta 200 m²koak. Tel. 617-688311. Maria.
– Garaje itxia alokagai Ardantzan (Arrate Bide, 2). Handia eta berria. 95 euro. Tel. 647-952677.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-025906.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-406751.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko, sukaldean laguntzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 686-149562 eta 632-234597.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 671-121334.
– Neska eskaintzen da umeak arratsaldetan zaintzeko eta LHko klaseak emateko. Tel. 638-855268.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko, tabernetan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-820424.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 632-541473.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 638-047847.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 683-554245.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 669-311385.
– Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 685-758326.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-527489.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldean laguntzeko. Esperientzia. Tel. 616-397348.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 632-700803.– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko etabar. Tel. 695-180539.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernak garbitzeko etabar. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko etabar. Tel. 646-778839.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 634-887814.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan edo funerarian tanatoprakto lanak egiteko. Tel. 647-898016.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-555040 eta 943-127018.

### 4.2. Langile bila

– Odontologoa behar da astero 2-3 arratsaldetan Ermuko hortz-klinika batean. Urte biko esperientzia gutxienez. clinicadentalcd@gmail.com
– Pertsona euskalduna behar da Eibarko taberna batean lan egiteko. Tel. 665-718396.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da akademia baterako. LHtik Batxilergo arteko klaseak emateko. Tel. 652-763264. laneskaintza@gmail. com

### 5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen dira: Euskara, Matematikak, Fisika, Kimika. Talde txikiak. Tel. 699-069080.
– Irakasleak maila guztietako klase partikularrak ematen ditu. Lau laguneko taldeak. Talde berriak urtarrilean. Tel. 685-739709. Patrizia.
– Bateria klaseak ematen dira. Lokal egokitua. Material ugari. Tel. 650-242368.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Ordenagailua salduko nuke. Ia berria eta egoera onean. Compaq. Tel. 653-167841 eta 943-208117.
– Sofa bi salgai: 3 plazakoa (2x0'88) eta bikoa (1'48x0'88). Beigeak eta garbitzeko teladunak. 400 euro. Tel. 650-988799. Marian.

### 6.2. Eman

– Garbigailua oparitzen dut. Edesa markakoa. Oso egoera onean. Tel. 943-120308.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Border Collie arrazako txakurra desagertu da, orain dela astebete, Azitain inguruan. 3 urte ditu, zuria eta beltza da eta eskumako belarria jausita dauka. Ikusten baduzue, deitu. Tel. 629-588627.



### 6.4. Bestelakoak

– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosiko nituzke. Tel. 943-572057.
– Playmobil jostailuak erosiko nituzke, baita doan jasoko ere. Tel. 638-925415. Bittor.



iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria

EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA

# MATRIKULA ZABALIK

## *Urtarrilaren 9tik aurrera*




***Ikastaro presentzialak:***

*ORDUTEGI ETA MAILA GUZTIAK*

*ZIBERGELA:*
*ordenagailuak, internet*

*EGA eta HABEren titulu ofizialak*
*(Administrazio, Osakidetza eta Ertzaintzaren perfilen baliokideak)*

*4. MAILAKO IKASTAROA*
*(EGAtik gorakoa)*
*astearte eta asteazkenetan (18:00-20:00)*

**Bista Eder 10 -PORTALEA-**
euskaltegiaeibar@telefonica.net
Telefonoa: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

EibarkoUdalaketaHABEk
diruzlagundutakozentroa
**Bekak**






FISIOTERAPIA
ZENTRUA
Ane Mendia
970 kol. zkia.

Tecarterapia
Kirol lesioak
Masajeak
Tendinitisak
Bizkarreko minak
Esginzeak
Etxez-etxeko zerbitzua





Arragueta, 20 - behea 943 530642


UNBE
ORBEA
IGERILEKUA
PADELPISTAK
TENISPISTAK
SPA
ZORIONAK!
eta
2012.
URTE
kirolari
ON!
Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar